



2022/11/24KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2022/11/24
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:20

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna
Ana Maria Martiarena Arregi
Santiago Balantzategi Beitia

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Juan Antonio Peña Orobengoa
Maria Cristina Etxenautia Irure
Oihana Ameskoa Perez
Iban Herrarte Arana

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaiion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzailera, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. 2021 EKITALDIKO KONTU OROKORRA ONARTZEA.	3
4. UDAL LANGILEEN SOLDATEN EGUNERAKETA.	3
5. ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN KUDEAKETA GOMENDIOA FORMALIZATZEKO HITZARMENA, ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUEN KUDEAKETA MATERIALERAKO.	7
6. AZAROAREN 25EKO MOZIOA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.	10
7. EUSKARAREN EGUNEKO MOZIOA.	17
8. GALDERAK ETA ESKAERAK.	22



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak adierazten du, 2022ko irailaren 24ko ohiko bilkurako akta ezin izan dela aurretiaz bidali eta, horrenbestez, hurrengo bilkurarako utziko dela horren onarpena.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (357/22tik 442/22ra).

3. 2021 EKITALDIKO KONTU OROKORRA ONARTZEA.

Alkateak aurkezten du 2021eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra. Kontu Orokorra osatzen dute, batez ere, udalaren 2021eko ekitaldiko eragiketen likidazioak eta udal enpresa publikoaren kontu eta auditoretza txostenak. Aurretik, dokumentu bakoitzak bere onarpena izana du dagokion foroan. Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak oniritzia eman ondoren, dagokion iragarkia argitaratu zen ALHAOn eta dokumentu osoa jendaurrean izan zen erakusgai 15 eguneko epean eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak egindako diktamena:

“**Lehena.-** Onestea 2021eko Kontu Orokorra.

Bigarrena.- Dagokion erakundeei egoki den dokumentazioa bidaltzea jardunbideari jarraipena emateko.”

Bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak proposatutako erabakia, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. UDAL LANGILEEN SOLDATEN EGUNERAKETA.

18/2022 Errege Lege-Dekretua argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 2022ko Urriaren 19an (251 zk.); besteak beste, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak onartzen dituen. Zehazki, VIII. atalean, 23. artikuluan, Errege Lege-Dekretu horrek honako hau xedatzen du:

“VIII. ATALA. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien arloko neurriak (...).

23. Artikulua. Sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsari-igoera gehigarria, 2022. urterako.

1. 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. ataletan, eta bat datozen gainerako aginduetan xedatutakoaz gain, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izan ditzan, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarietako ehuneko 1,5eko gehikuntza-gehirria izango dute, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez.

2. Gehikuntza-gehirri hori 19.Bi artikuluan xedatutako moduan egingo da, eta honako arau hauek beteko ditu:

Lehenengoa. 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei aplikatuko zaie. Beraz, bien baturak, nolana ere, ehuneko 3,5eko gehieneko ordainsari-igoera globala finkatuko du 2022ko ekitaldirako.

Bigarrena. 2022ko azaroko nominan gauzatuko da, eta atzerapen gisa ordainduko da aurtengo urtarriletik urrira bitarteko hilabeteei dagokien igoera.

Hirugarrena. Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen eremuan, ordainketa 2022ko abenduaren 31 baino lehen gauzatu beharko da; eta, nolana ere, 2023ko martxoaren 31 baino lehen.

3. 2022an, salbuespen gisa, Estatuak baimena eman ahal izango die autonomia-erkidegoei epe luzerako zorpetze-eragiketa berriak formalizatzeko; edo baliabideak esleitzeko finantzaketa-mekanismo gehigarrien kontura, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen laurogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren bigarren atalean aipatzen diren gehigarriak, hain zuzen ere, behar den zenbatekoaren baliokidea, artikulua horretan aurreikusitako ordainsari-igoera gauzatzeko.



4. 2022an kreditu-aldaketak, hau da, aparteko kredituak edo kredituen gehigarriak izapidetzen badira, martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege-Dekretuak onartutako Toki-Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 177.6 artikulua aplikatu ahal izango da. Toki-Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 182. artikulua araberan, artikulua horretan araututako ordainsari-igoera finantzatzeko onartutako aparteko kreditua edo kreditu-gehigarria sartu ahal izango da hurrengo ekitaldiko gastuen aurrekontuetako dagozkien kredituetan. Ordainketa 2023ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko da. Salbuespen gisa, Toki-Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 177.4 artikulua betetzeko nahikoa baliabide ez duten toki-erakundeek mailegu bat formalizatu ahal izango dute Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtzarekin, xedapen gehigarri horren aurreko atalean aipatutako kreditu-aldaketak finantzatzeko aldera. Horrenbestez, zabaldu egiten da autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-iraunkortasunerako neurriei eta beste neurri ekonomiko batzuei buruzko abenduaren 26ko 17/2014 Errege Lege Dekretuaren 40. eta 52. artikuluetan ezarritako eremu objektiboa. Mailegu horren zenbatekoa ezingo da izan gastuen egoera-orriko 1. kapituluaren aitortutako obligazio garbien ehuneko 1,5 baino handiagoa, 2021eko aurrekontuaren likidazioaren arabera. Kasu horietan, toki-erakundeek 2023ko martxoaren 31 baino lehen egin beharko dute ordainketa.

Finantzaketa hori eskuratzeko baldintzak, bai eta eragiketa horren finantza-baldintzak ere, Ekonomia Gaietarako Gobernuaren Ordezko Batzordeak onartuko ditu. Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko organo eskuduna gaituko da, beharrezkoak diren jarraibideak edo ebazpenak emateko. atal hori aplikatzeko prozedura zehazte aldera.

5. Estatu-eremuari dagokionez, Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzari gaituztasun emango zaio, II. tituluko I. kapituluak eta haren eranskinetako artikuluetako zenbateko zehatzak dagozkien kopuruetara eguneratzeko; bai eta 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei, 19.Bi artikuluko ehunekoari berariaz erreferentzia egiten ez diotenei buruzko abenduaren 28ko 22/2021 Legearen III. tituluko I. eta II. kapituluak ere, onartutako gehikuntzaren arabera, eta dagozkien zenbatekoak ordaintzeko jarraibide egokiak emate aldera.

6. Artikulu hori oinarritzeko da, 5. atala izan ezik; eta Konstituzioaren 149.1.13 eta 149.1.18 artikuluen babesean eman izan da.”

Besterik gabe, aurkezten da Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak eta Zerbitzuen Batzordeak Udalbatzari egiten dioten erabaki proposamena:

Lehena.- Udal langileen ordainsariak handitzea, 2022/01/01etik aurrerako ondorioekin, 18/2022 Errege Lege-Dekretuak onartutako soldata gehigarria, hau da, langileen ordainsariak %1,5eko gehikuntza-gehigarria izango dute 2021eko abenduaren 31n indarrean zeudenei dagokienez. Gehikuntza-gehigarri hori egiteko, aipatutako arauaren 23.2 artikuluan zehaztutako jardunbidea jarraituko da.

Bigarrena.- Honakoaren berri ematea udal langileei.

Alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

5. ARABAKO FORU ALDUNDIAREKIN KUDEAKETA GOMENDIOA FORMALIZATZEKO HITZARMENA, ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUEN KUDEAKETA MATERIALERAKO.

Indarrean dagoen araudiak hainbat eskumen aitortzen dizkie udalei. Kasu batzuetan, eskumen horiek egikaritzeko beharrezkoak diren jarduerak dituzten eduki material, tekniko edo zerbitzuzkoa, ezinezkoa egiten dute udalek aurrera eramatea. Hala ere, Arabako Foru Aldundiaren bitartez posible da eskumen horiek egikaritzea, modu koordinatu eta eraginkorren. Horretarako, aipatutako erakundearekin hitzarmena sinatu beharra dago, kudeaketa gomendioa aurrera eramateko.

Hitzarmenak horrela dio, hitzez hitz:

“ARAMAIOKO UDALAK ARABAKO FORU ALDUNDIARI EGINDAKO KUDEAKETA-GOMENDIOA FORMALIZATZEKO, ABENDUAREN 28KO 20/2021 LEGEAREN ONDORIOZKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO PROZESUEN KUDEAKETA MATERIALERAKO.

ELKARTU DIRA



Esp. kodea.: 2022APAK0007

Gaia: 2022/11/24 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

Gasteizen eta xxx, sinadura egunean

Alde batetik,

.....andrea, Arabako Foru Aldundiko.....Departamentuko foru diputatua, departamentuko titularrak izateagatik hitzarmen hau sinatzeko ahalmendua Foru Gobernuaren Kontseiluaren 2022ko xxxaren xxko Erabakiaren bidez.

Bestetik,

Lierni Altuna Ugarte andrea, Aramaioko Udaleko alkate-lehendakaria, haren izenean eta ordezkartzan, 2022ko azaroaren 24ko udalbatzak egindako eskuordetzaren arabera.

AZALTZEN DUTE

LEHENENGO.- Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legeak egonkortze-prozesu batzuk egitera behartzen ditu administrazio publiko guztiak, baita Arabako toki-erakundeak ere, dagoeneko argitaratuta dituzten lan- eskaintza publikoen arabera eta lege horretan jasotako aurreikuspenen babesean.

BIGARREN.- Toki Administrazioaren eremuan prozesu horien garapena errazteko, 20/2021 Legearen lehen xedapen gehigarriak berariaz aurreikusten du toki-erakundeek beren kudeaketa materiala probintzietako diputazioen esku uzteko aukera; edonola ere, mandatu horretatik kanpo geratzen dira Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen X. tituluan aurreikusitako biztanle-kopuru handiko udalerriak.

HIRUGARREN.- Azaldutako guztiagatik, 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako merezimendu-lehiaketako sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez, bi alderdiek erabaki dute Arabako Foru Aldundiak Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jardura egitea.

LAUGARREN.- Bere eduki material eta teknikoagatik ematen zaio jardura hori egiteko ardura; eta horrek ez du esan nahi toki-erakundearen titulartasuna transferituko denik, ezta haren eskumenak baliatuko direnik ere. Beraz, toki-erakundeak gomendioaren xede den jardura material zehatzari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo ebazpen juridiko guztiak emango ditu.

BOSGARREN.- Horregatik guztiagatik, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikularekin bat etorritik, bi alderdiek kudeaketa-gomendioari buruzko hitzarmen hau sinatzen dute, eta klausula hauek izango ditu:

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN XEDEA ETA GOMENDIOAREN IRISMENA.

Hitzarmen honen xedea da Aramaioko Udalak (aurrerantzean, toki-erakundeak) Arabako Foru Aldundiari egiten dion kudeaketa-gomendia formalizatzea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen seigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietatik eratorritako lehiaketa-sistemaren bidezko egonkortze-prozesuei dagokienez.

Zehazki, Arabako Foru Aldundiaren esku uzten da lehiaketan Epaimahai Kalifikatzaileari dagokion jardura materiala eta teknika egitea, behin toki-erakundeak autobaremazio handiena duten izangai onartuek alegatutako merezimenduen egiaztagiriak bidali ondoren.

Gomendio honek aipatutako prozesuek eskatzen dituzten jardura tekniko edo materialei eragiten die bakarrik.

BIGARRENA.- ESKUMENEN TITULARTASUNA.

Hitzarmen honi jarraiki egindako gomendioak ez du eskumenaren titulartasuna aldatuko, eta ez du eraginik izango gomendiopeko jardura materiala gauzatu aurretik edo ondoren hartu beharreko erabaki juridikoen eremuan.

Adibide gisa, toki-erakundeari dagokio:

- Hitzarmen honetan aipatzen diren egonkortze-prozesuen deialdia eta oinarriak onestea, eta aldizkari ofizialetan argitaratzea.
- Egindako autobaremazioaren arabera ordenatutako onartuen eta baztertuen zerrendak onestea eta argitaratzea.
- Epaimahai Kalifikatzaileko kideak, Arabako Foru Aldundiak proposatutakoak, izendatzea.
- Hautatutako pertsonak kontratatzea edo izendatzea, Epaimahai Kalifikatzaileak egindako proposamenarekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.- ARABAKO FORU ALDUNDIAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK.

Arabako Foru Aldundiak Epaimahai Kalifikatzaile izendatzea proposatuko dio toki-erakundeko organo eskumendunari; eta epaimahai horrek behar bezala funtzionatzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak jarriko ditu.

Bere osaerari dagokionez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio epaimahaiari.

Epaimahai horren eginkizun nagusiak hauek izango dira:



Esp. kodea.: 2022APAK0007

Gaia: 2022/11/24 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

- Deialdiaren oinarrien arabera, autobaremazio handiena duten onartutako izangaien merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa baloratzea, toki-erakundeak bidali ondoren.

Egokitzat jotzen den kasuetan, eta deitutako plazei lotutako lanpostuen berezitasun espezifikoak egiaztatze aldera, izangaiek alegatutako merezimenduei dagokienez, epaimahaiak toki-erakundeko teknikarien laguntza eskatu ahal izango du beharrezkoak diren gai teknikoetarako.

Era berean, dagozkion egiaztapenak egin ahal izango ditu, eta, horretarako, behar diren zuzenketak egiteko eskatu ahal izango du.

- Baloratutako pertsonen zerrenda onestea eta argitaratzeko agintzea; eta puntuazio handiena lortu dutenak funtzionario bihurtzea edo kontratatzea proposatzea.
- Aurkeztutako erreklamazioak ebatzea eta jarritako errekurtsoen inguruko txostena egitea.

Arabako Foru Aldundiak, halaber, kudeaketa- gomendioa modu eraginkorren egiteko konpromisoa hartzen du, baliabide publikoak optimizatuz.

LAUGARRENA.- TOKI-ERAKUNDEAK BERE GAIN HARTUTAKO KONPROMISOAK ETA BETEBEHARRAK.

Kudeaketa-gomendio honen esparruan, eta hori behar bezala garatzeko, toki-erakundeak:

- Baloratu beharreko merezimenduak dituzten pertsonen zerrenda egingo du, autobaremazioaren arabera ordenatuta; alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa eskatuko die eta ondoren zerrenda nahiz dokumentazioa Epaimahai Kalifikatzaileari bidaliko dizkio.
- Epaimahaiari eskatzen duen laguntza teknikoa emango dio; eta behar duen informazio guztia ere bai, bereziki, lanpostuen ezaugarriak eta eginkizunei buruzkoa.
- Epaimahaiak eskatutako zuzenketak eta agiriak eskatuko dizkie izangaiei, eta epaimahaiari bidaliko dizkio.
- Aurkeztutako erreklamazioak jaso eta Epaimahai Kalifikatzaileari bidaliko dizkio; eta hautaketa-prozesuarekin zerikusia duten administrazio-egintzen eta ebazpenen jakinarazpenak eta argitalpenak egingo ditu, epaimahaiak berak emandakoena barne.
- Erreferentziako pertsona bat edo solaskide bat izendatuko du, Epaimahai Kalifikatzailearekin behar bezala koordinatzeko.

BOSGARRENA.-EKONOMIA- ETA FINANTZA- ARAUBIDEA.

Hitzarmen honen xedek ez dakar betebehar, konpromiso nahiz konpentsazio ekonomikorik sinatzaileen artean.

SEIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Jarraipen Batzorde bat eratu da, toki-erakundearen bi ordezkariak eta Arabako Foru Aldundiko beste bi ordezkariak osatua. Lehendakaria Arabako Foru Aldundiko ordezkarietako bat izango da.

Bere eginkizunen artean daude hitzarmena ondo aplikatzen dela ziurtatzea, aplikazio horretan sor daitezkeen zalantzak, desadostasunak eta gorabeherak konpontzea, bertan jasota ez dauden gaiak ebatzea eta betetze-maila, gauzatze-maila eta balizko hobekuntzak ebaluatzea, baita Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikulutik eratorritako guztiak ere.

Batzordea behar beste aldiz bilduko da, alderdietako edozeinek eskatuta.

Erabakiak gehiengo soilez hartuko dira. Lehendakariari dagokio berdinketak bere botoarekin ebatzea.

ZAZPIGARRENA.- HITZARMENAREN INDARRALDIA.

Hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta 2024ko abenduaren 31 arteko iraupena izango du.

Epe horretan ez badira burutu kudeaketa-gomendioko jarduketak guztiak, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute epea luzatzea, 40/2015 Legearen 49.2 artikuluan aurreikusi mugarekin.

ZORTZIGARRENA.- HITZARMENA ALDATZEA.

Hitzarmena aldatzeko, alderdiek aho batez adostu beharko dute.

BEDERATZIGARRENA.- HITZARMENA AZKENTZEA.

Hitzarmen hau azkenduko da bere xede diren jarduketak betetzeagatik edo suntsiarazteko arrazoiak emateagatik.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- Hitzarmenaren indarraldia amaitzea bere luzapena erabaki gabe.
- Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.
- Sinatzailearen batek bere gain hartutako betebeharra eta konpromisoak ez betetzea.
- Deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala.



- Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoiengatik.

Ez da alde batetik bestera kalte-ordainik emango ez- betetzeagatik.

HAMARGARRENA.- DATU PERTSONALAK BABESTEIA.

Hitzarmen honi datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu beharreko araudiak honako hauek dira: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesari buruzkoa (aurrerantzean, DBEO); eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.

- Egin beharreko datu pertsonalen tratamenduaren deskribapena: rol eta betebeharrak juridikoak.

Rolak: 40/2015 Legeak 11.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundia izango da kudeaketa-gomendia gauzatzean eskura ditzakeen datu pertsonalen tratamenduaren eragilea. Bestalde, toki-erakunde sinatzaileek tratamenduaren arduradun-rola izango dute beren langileen datuen tratamenduari dagokienez eta beren eskumenera esparruan.

HAMAİKAGARRENA.- ARAUBIDE JURIDIKOA

Hitzarmen honek ez du alderdien arteko inolako kontratu-harremanik ekarriko; eta administrazio-izaera izango du, 40/2015 Legearen atariko tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoenari dagokionez, urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko da.

Horrekin guztiarekin bat datozela egiaztatzen, bi aldeek elektronikoki sinatzen dute hitzarmen hau, dokumentu hau formalizatzeko datatzat azken sinatzailearen data hartzen delarik.

Arabako Foru Aldundiaren izenean

/

Aramaioko Udalaren izenean"

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Onartzea Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena sinatzea, kudeaketa-gomendia formalizatzeko, abenduaren 28ko 20/2021 legearen ondoriozko aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen kudeaketa materialerako.

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea hitzarmena sinatzeko eta horri dagozkion eginbideak aurrera eramateko.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

6. AZAROAREN 25EKO MOZIOA: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA.

Alkateak gogorarazten du azaroaren 25a dela Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna eta aurkezten du horren inguruan udalak prestatutako testua. Testu horrek, hitzez hitz, horrela dio:

“AZAROAREN 25eko ERAKUNDE-ADIERAZPENA

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroaren 25ean, Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren aurkako Nazioarteko Egunean, Aramaioko Udalak indarkeria matxistik gabeko jendartea eraikitzeke duen konpromisoa berretsi nahi du.

Garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren jatorria testuinguruan kokatzea, indarkeria horren arrazoa ulertu ahal izateko. Indarkeria matxista gure jendartean emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdintasunaren ondorioz sortzen da. Indarkeria fisikoa, sexuala eta hilketa emakumeen aurkako indarkeriarik basatienaren adierazpena badira ere, eta gehienek errazago identifikatzen badute ere, eguneroko indarkeria matxista ugari daude, emakume guztiak aurre egiten dietenak eta identifikatzeko zailagoak direnak. Baina eguneroko indarkeria horiek dira indarkeria-egoera oldarkorrenak ematea ahalbidetzen dituztenak.

Indarkeria hori bizitzeko esparru guztietan ematen da, eta, horregatik, egiturazko desberdintasunaz hitz egiten dugu, sistema bera emakume eta gizonentzako oinarri desorekatu baten gainean eraikitzen delako, eta, ondorioz, desberdintasun hori transmititu eta mantendu egiten du.

Esan daiteke desberdintasunaren existentzia bera indarkeria matxista dela berez, eta XXI. mendean jada gaituzte dagoela dirudien arren, enpleguari, zainketa banaketari eta astialdiari, soldata-arrakalari, baliabide ekonomiko eta sozialei, parte-hartzeari, genero-aginduei (rolak eta estereotipoak) eta abarri buruzko datuek berdintasunetik oraindik urrun gaudela islatzen dute.

Ondorioz, 2003. urtetik, hilketa matxistik zenbatzen hasi ziren urtetik, Euskal Herrian, 2022. urtera arte 115 emakume eta 11 adingabe erail dituzte. Horietatik 15 emakume eta haur bat arabarrak ziren. Azken urte honetan, 2022an, 3 emakume erail dituzte. Eraiketa guzti hauek gizonen eragin dituzte denak.



Gure landa-eremuan ere badago indarkeria matxista, eta, batzuetan, biztanle gutxiko udallerriak direnez, zailagoa da horri aurre egitea, jendartean izan dezakeen eragina eta estigmaren beldur. Alde horretatik, erakunde publikoetatik arreta bikoitza eskaini behar dugu, eta posible ditugun baliabide guztiak jarri behar ditugu eskura, kaltea prebenitzeko, detektatzeko, artatzeko eta minaren erreparazioa hobetzeko. Baina baita gizonekin egiteko dagoen lanean ere.

Emakumeak urrats garrantzitsuak ematen ari dira ahalduntze indibidual eta kolektiborako prozesuetan. Gainera, Mugimendu Feministak emakume asko bultzatzen ditu haien harreman eta lotura afektiboak birpentsatzera eta askeago sentitzen diren bizitza bat lortzera. Baina, desberdintasuna eta indarkeria matxista nekez desagertuko da gizonekin lan egiten ez bada, haiek baitira indarkeria hori erabiltzen dutenak.

Egoera horren aurrean, Aramaioko Udalak konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Emakumeen ahalduntze indibiduala eta kolektiboa bultzatzeko jarduerak antolatzen jarraitzea.
2. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza-jarduerak antolatzea, udal-arlo guztietan genero-ikuspegia txertatzeko.
3. Gizonei zuzendutako prebentzio, sentsibilizazio eta gogoeta-jarduerak bultzatzea.
4. Mugimendu Feminista solaskide eta aldatetaren eragile gisa babesten eta legitimatzen jarraitzea.

Aramaioko Udaletik herritar guztiak animatzen ditugu hilaren 25erako antolatu diren mobilizazioetan parte hartzen.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta, proposatzen du, alkateak irakurritako testuaren ordez beste testu bat onartzea, hain zuzen ere, Eudelen adostutako testua azaroaren 25aren inguruan. Hartara, testua irakurtzen du eta hitzez-hitz horrela dio:

“SEXU-JAZARPENA ETA EMAKUMEEN AURKAKO BESTE SEXU-INDARKERIA MOTA BATZUK ESPAZIO PUBLIKOETAN

Azaroaren 25ean emakumeen beraien eskubidea aldarrikatu nahi dugu, espazio publikoa berdintasun-baldintzetan erabiltzeko eta horiez gozatzeko, herritartasun osoari dagokien eskubideak bermatze aldera. Hitz batez, norberaren askatasun indibidual eta kolektiboaren garapena bermatzea.

Emakume askok aurrerapenak lortu dituzte, banaka egindako ahalegin tematiaren bidez; bai eta mugimendu feministek eta beste erakunde batzuek egindako lanaren bidez ere, espazio publikoak eta pribatuak gizonen eta emakumeen artean banatzeko dikotomia gainditzeko helburuarekin. Hala ere, bi aldeen arteko desberdintasuna agerikoa da oraindik, batzuek eta besteek bizitza publikoan parte hartzeko izan dezaketen erabileran, bai eta gure hirietako eta herrietako kaleez gozatzeko eta haiez jabetzeko orduan ere.

Berdintasunezko erabilera hori murrizten duten mekanismo anitzen artean, sexu-indarkerian jarri nahi dugu fokua; izan ere, mundu osoko emakumeak eta neskatilak espazio publikoan sufrizten ari dira.

Emakumeen eta nesken aurkako sexu-indarkeria, indarkeria matxista normalizatuaren testuinguruan, helburu argia du, funtzio sozial zehatz bat: emakumeak kontrolatzea eta haien askatasuna murriztea, hain zuzen ere. Zehazki, jai- eta aisialdi-testuinguruetan gertatzen den sexu-indarkeriak emakumeen sexualitatea kontrolatzeko funtzio hori betetzen du. Era berean, haien nahia, gorputza, mugikortasuna, espazio publikoko okupazioa, gizarte-harremanak eta berdintasun baldintzetan gozatzeko eskubideak kontrolatzea ere.

Beraz, euskal politika publikoen eta administrazioen betebeharra eta helburua da eskura dituen estrategia eta mekanismo guztiak sustatzea, emakumeek eta neskek beren herritartasun osoa gauzatu ahal izateko gure hiri eta herrietako espazio fisikoan, eta horiek erabiltzea, berdintasun-baldintzak bermatuta.

Kontuan izan behar dugu erreklamaturako eskubidea ez dela segurtasunera mugatzen, baizik eta espazio batean bizitzeko sarbidera eta askatasunera zabaltzen dela; sozializatzeko, bere egiteko eta eraldatzeko, emakumeen eta nesken interesen, nahien eta beharren arabera.

Toki-administrazioei dagokie, beren politika publikoen eta hiri-plangintzaren bidez, espazio publikoak emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko leku lagunkoi bihurtzea.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak», espazio publiko seguruak eta ahalduntzaileak sustatzen du emakumeentzat eta neskeentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Esparru horretan, Aramaioko Udalak bere gain hartzen ditu konpromiso hauek:

1. Era sakonean ezagutzea emakumeei espazio publikoa ukatzeko modu anitzak, tokiko politiken diseinuan eta garapenean kontuan hartzeko.
2. Lege eta politika integralen ezarpen eraginkorra bultzatzea, espazio publikoetan sexu-indarkeriarik aurrea hartzeko eta erantzuteko. Eta, era berean, gaitasunak, sentsibilizazioa, komunitate-mobilizazioa eta beste estrategia batzuk garatzea.
3. Aldaketak bultzatzea jarreretan eta portaeretan, emakumeek eta neskatok indarkeriarik gabeko espazioez gozatzeko dituzten eskubideak bermatze aldera. Hori gauzatzeko, errespetuzko genero-harremanak, genero-berdintasuna eta segurtasuna sustatzea espazio publikoetan.
4. Inbertsioak sustatzea, espazio publikoetan hautemandako segurtasun errealari dagokionez; genero-ikuspegia ziurtatzea hiri-plangintzan, emakumeen beharrezan kontuan har daitezkeen.



5. Berdinsarea tokiko jardunbide sare gisa indartzea, ekimenei eta jardunbide egokiei buruzko ezagutza-trukea errazteko. Eta hiri eta herri seguru eta inklusiboak lortzeko, emakumeentzat eta nesKentzat.
6. Beste erakunde eta administrazio batzuekin lankidetzan aritzea, Emakunde eta foru-aldundiekin besteak beste; gizarte-taldeekin, feministekin, ere, emakumeek eta neskek aukera izan dezaten espazio publikoaz segurtasunez eta berdintasunez gozatzeko."

Alkateak adierazten dio irakurri dutela testua eta ados daudela bertan esaten diren gauzeekin; hala ere, lehenengoko testua bertako ikuspegitik landu dela eta udaleko berdintasun teknikariarekin. Halaber, proposatzen du bi testuak onartzea.

Besterik gabe, bozketa deitu eta Udalbatzak, lehenengo, alkateak aurkeztutako testua bozkatzeko da eta EH BILDUKO 4 zinegotzien aldeko bozkarekin eta EAJ-PNV udal taldeko zinegotziaren abstentzioarekin, alkateak aurkeztutako adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

Ondoren, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako testua bozkatzeko da eta EH BILDUKO 4 zinegotzien aldeko bozkarekin eta EAJ-PNV udal taldeko zinegotziaren aldeko bozkarekin, Udalbatzak "Sexu-jazarpena eta emakumeen aurkako beste sexu-indarkeria mota batzuk espazio publikoetan" izendaturiko adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

7. EUSKARAREN EGUNeko MOZIOA.

Alkateak gogorarazten du datorren abenduaren 3a dela Euskararen Nazioarteko Eguna eta aurkezten du horren inguruan UEMAK, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak prestatutako testua. Testu horrek, hitzez hitz, horrela dio:

"UDALERRI EUSKALDUNEN ADIERAZPEN BATERATUA.

Berriki ezagutu ditugu udalerri euskaldunen bilakaera soziolinguistikoaren datu gehiago. Euskararen ezagutzak gora egin duenez, gero eta gehiago dira udalerri euskaldunak, eta euskararen lurgunea ere sendotzen ari da. UEMARA gehitu diren azken udalak kontuan hartuta, berriz, 300.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dugu Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko herriek.

Ez da nolana hiko zenbakia. Euskal Herrian ekoizten den euskararen erdia udalerri euskaldunetan ekoizten baita. Hemen daga, kuantitatiboki, euskararen errealtatearen erdia. Kualitatiboki, berriz, euskarari hauspoa eta arnasa ematen diote udalerri euskaldunak. Berebiziko garrantzia dute euskararen biziberritzean, transmisioan eta indarberitzean, eta herri honen izaeraren ardatza dira. Euskararen herriak gara, eta Euskararen Herria osatzen dugu denon artean. Euskal Herria.

Hizkuntzaren osasuna, ordea, erabilerak erakusten du, eta hor erronka handiak ditugu, gaur bertatik hasita. Hizkuntza ohiturak aldatzeko eta euskara sustatzeko ariketa handia egin dugu azken egunotan, bai herritarrek, gizarte eragileek zein erakunde publikoek.

Bihar amaituko da Euskaraldia, eta beste behin ere ederra izan da herri honek euskaraz bizitzeko adierazi duen gogoia.

Euskararen biziberritzea, ordea, ezin da ulertu ahalegin indibidualen batuketa moduan. Erakunde publikoari eredu izatea dagokigu, eta herritarrei euskaraz bizitzeko bidea bermatzea eta erraztea.

Udalerri euskalduneei eustea ezinbestekoa du herri honek, euskararen herria izaten jarraituko baldin badu. Horretarako, udalerri euskaldunak garatzeko erabakiak eta bitartekoak behar ditugu, udalerriei bizirik eusteko. Baina baita udalerri horietan euskarari eusteko ere. Hirigintzan, ekonomian, lurralde antolaketan, kulturen edota turismoa sustatzeko ekimenetan hartzen ditugun erabakiek eragin handiagoa izan dezakete euskararen erabileran eta bilakaera soziolinguistikoan, euskara zerbitzuetatik hartzen diren erabakiek edota egiten den hizkuntza politikak baino. Aurten, Euskararen Eguna, hori ikusarazteko eta ulerrazteko mugarriz izatea nahiko genuke.

Izan ere, udalerri euskaldunetan euskarari eusteko egiturazko erabaki ausartak behar ditugu, elebitasun orekatua gainditu eta oraindik ere hauskorrak diren udalerri euskaldunetan euskaraz bidea eta arnasa zabaltzen segi dezan."

Pedro Elozegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta, proposatzen du, alkateak irakurritako testuaren ordez beste testu bat onartzea, hain zuzen ere, Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan. Hartara, testua irakurtzen du eta hitzez-hitz horrela dio:

"Adostasuna, etorkizunaren giltzarri

Euskararen Legeak berrogei urte: adostasunaren eraginkortasuna

Autogobernuaren eskutik egin du euskarak milaka urteko bere historian ezagutu duen aurrerabiderik sendoena, euskal herritarren ezinbesteko kontzientzia eta ekimena oinarri hartuta.

Gaur, Euskararen Nazioarteko Egunean hain zuzen ere, datu soziolinguistiko zehatzetan oinarritzen den baieztapen hori lau haizetara zabaltzeko egokieran baldin bagaude, zintotasunez aitortu behar dugu euskararen eta euskaldunen historian ohorezko tokia duen ekimen bat dagoela aurrerabide horren iturburuan.



Izan ere, aurten berrogei urte bete ditu Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legeak, 1982an onartu zenez geroztik Euskararen Legetzat ezagutzen dugunak.

Ugari biltzen ditu urtemuga horrek ospakizunerako arrazoiak, arau nagusi hori baitute berme eta oinarri euskarak alor guztietan egin dituen urratsak. Hartan dituzte sustraiak eta ezinbesteko lege-babesa administrazioaren, irakaskuntzaren, hedabideen, helduen euskalduntzearen, esparru zientifikoaren, lan munduaren eta gizarte erabileraren alorretan, besteak beste, hartu diren neurriek. Hartan du zimentarri gaurko errealitatera ekarri gaituen arautegiaren lege-erakinak.

Baina Euskararen Legeari zor dioguna agerian jartzerakoan, ezinbestez nabarmendu beharko dugu arau horri benetako indarra eta iraunkortasuna eman dizkion ezaugarria: adostasun zabal sendo baten gainean eraikitako legea da, eta hortik datorkio, besteak beste, eraginkortasuna.

Asko zor dio euskarak adostasunari, eta deus ere adostasun ezari. Adostasuna baitu euskararen etorkizunak giltzarri; hondamendi luke euskarak, ordea, adostasun eza.

Eta adostasunak borondatea du oinarri ezinbesteko. Borondatea, eta eskuzabaltasuna noski, behar baitira buru-bihotzetan abiaburu eta helmuga ezberdinak ditugunon artean diagnosiak eta aurrerabiderako urratsak adostea. Ez da inola ere eginkizun erraza; bai, ordea, euskararentzat ezinbestekoa. Ausardia eta zuhurtzia orekatzea eskatzen du adostasun eraginkorrek, hilda jaiotzen baita neurri bizkorregi zein geldoegi oro. Euskarak bai baitaki aldeko egokierak baliatzen, eta badaki, era berean, behar denean aukera hobearen zain egoten; baina ez du, neurri berean, denbora inoizko larretan galtzerik.

Neurri berean baitu euskarak ezinbestekoa inor ez atzean uztea eta aurrera urrats bizi bezain sendoz egitea.

Euskararen Legeak berak eta haren berrogei urteko garapenak erakutsi digute hori guztia. Eta zinez dira horiek aurrerantzean mamitzen jarraitu behar ditugun ikasgaiak. Euskararen mesedetan. Euskal hiztunon eta euskal herritar guztion onurarako. Euskal gizartearen kohesioaren alde. Euskal Herri izenari izana ematen diolako euskarak.

Norabide ugariatan proiektatu ziren Euskararen Legean adostasunaren ildoak, eta bide horretatik jarraitu behar dugu aurrerantzean ere. Desberdinen arteko adostasunean bilatuko baitugu beti elkarrekin aurrera egiten jarraitzea ahalbidetzen duen konpromisoaren puntu kritikoa, giltzarria. Hortik kanpora, euskarak galbide lukeen liskar soziala baizik ez.

Atzeak erakutsi ohi duenez aurrea nola dantzatu behar den, aukera paregabea dugu esku-eskura adostasunaren baliagarritasun praktikoa egiaztatzeko, Euskaraldia bizitzen ari baikara aurten berriz ere gure inguru osoan.

Izan ere, deigarria da, eta zinez pozgarria, Euskaraldiak biltzen duen adostasun sozial eta politikoaren neurria. Baina pozgarri eta deigarri ez ezik, baliagarri eta bide-erakuslea ere bada adostasun hori, euskararen benetako ardura praktikoa bere gain hartzen duen gizarte eleaniztun bat eraikitzerakoan.

Hori da Euskararen Nazioarteko Egunean aurten aldarrikatu nahi dugunaren mamia: Euskararen Legeak erakusten digunez, hizkuntza ohiturak aldatzea eta euskararen aldeko atxikimendua bilatzen duten ekimenetan frogatu da zein garrantzitsua den adostasunez jokatzeko. Euskaraldiak, adibidez, denon begian agerian jartzen duenez, adostasuna du euskarak aurrerabiderako lema, erabileraren aldeko gizartearen eta norbanakoaren konpromiso tinkoarekin batera, ekimen publiko eta pribatuaren arteko lankidetzarekin batera, elkarren onspen zintzoarekin batera.

Euskarak batzen gaituelako, ez inola ere banatzen.

Adostasunean.”

Alkateak adierazten dio irakurri dutela testua eta ados daudela bertan esaten diren gauzekin. Halaber, proposatzen du bi testuak onartzea.

Besterik gabe, bozketa deitu eta Udalbatzak, lehenengo, alkateak aurkeztutako testua bozkatzeko da eta bertaratutako zinegotzi guztien aldeko bozkarekin, alkateak aurkeztutako adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

Ondoren, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako testua bozkatzeko da eta bertaratutako zinegotzi guztien aldeko bozkarekin, alkateak aurkeztutako adierazpena ONETSI ETA BERE EGIN DU.

8. GALDERAK ETA ESKAERAK.

1.- Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta ondorengo galdera egiten du EAJ-PNV udal taldearen izenean:

“Azken maiatzean ospatutako Osoko bilkuran hainbat inbertsio lanak egiteko 2021ko likidazioa positiboa zegoela eta, diru txertatze batzuk onartu ziren.

Hauek dira esandakoak:

Bixente Goikoetxearen estatua berriztu	30.473,31 €
K.E.-ko aretoan hobekuntzak	7.843,30 €



Santana Ermitari harria atera	7.502 €
Auzoetan buzoiak	5.8803,55 €
Farola berriak	6.236,34 €
Asfaltoa	160.354,49 €
Maskulinitate tailerra	1.480,14 €
DG2030 azterketa energetikoa	2.400 €
Gazte txokoa	36.790,44 €
Iturri-zuriko ur arazoa	12.655.39 €
Correos paketeriarako buzoiak	1.000 €
Anbulatorio arrapala	9.731,31 €
GUZTIRA	255.330,27 €

EAJ-PNV Udal taldetik jakin nahi dugu zer egoeratan dauden espedienteak izapidetzen dataren arabera, eta, hala badagokio, zer egoeratan dauden 2021eko aurrekontuaren likidazio horren kontura sartutako ekintzak eta obrak.”

Gehitzen du, idatzizko erantzuna nahi dutela.

Alkateak erantzuten dio, presatu eta jasoko duela dagokion erantzuna.

2.- Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak hitza hartu eta ondorengo eskaera egiten du EAJ-PNV udal taldearen izenean:

“Joan den azaroaren 16an bilera bat egin zen, bertan Aramaioko mendietan jarri nahi den parke eolikoa sustatzen duen Statkraft enpresaren ordezkariak proiektua azaltzen saiatu ziren.

Gai horri dagokionez, honako hau galdetu nahi dugu:

- Zein da Aramaioko alkatearen irizpidea eta iritzia energia berriztagarriei buruz?
- Alkateak beharrezkotzat jotzen du energia berriztagarrien, eolikoaren eta eguzki-energiaren parkeak instalatzea, 2030 agendan aurreikusitako garapen jasangarriko helburuak lortzeko?
- Zein da alkatearen iritzia eta irizpidea Aramaioko udalerrian proiektatutako parke eolikoari buruz?
- EH Bildu Statakraftek Gipuzkoako hainbat lekutan aurkeztutako proiektuen alde agertu da. Alkatea, EH Bilduko kide den aldetik, Aramaion aurreikusitako instalazioaren aldekoa al da?
- Nola kudeatuko du Aramaioko Udalak parke horren tramitazioa?”

Kasu honetan ere, gehitzen du, idatzizko erantzuna nahi dutela.

Alkateak erantzuten dio, presatu eta jasoko duela dagokion erantzuna.

3.- Santiago Balantzategi Beitia zinegotziak hitza hartu eta gai bati buruzko aipamena egin nahi du Udalbatza jakinaren gainean izan dadin. Duela 6 urte inguru hasi ziren zuntz optikoa auzo guztietan zabaltzen eta gaur egun oraindik arazo handiak daude auzoetan. Auzo batzuetan zuntzik ez da iritsi, aldiz, kobrezko hariak kendu egin dituzte eta router batzuk jarri dituzte baina horiekin funtzionatzeko arazo handiak dituzte. Guztia, goragoko erakunde eta administrazioetatik datorren apustua da baina, hala ere, hori da egoera eta ez dago berri handiagorik. Horretaz gain, arazoak ere sortzen dira pertsona nagusien eta mendekotasuna duen pertsonen telelaguntza sistemak egoki funtzionatzeko.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak dio, obra hori Foru Aldundiak bultzatutakoa izango dela, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saitetik. Bere ustetan egokiena izango da zuzenean kontaktuan jartzea M^a Pilar García de Salazar Olanorekin, bera baita sail horretako ardura duen foru diputatua.



Esp. kodea.: 2022APAK0007

Gaia: 2022/11/24 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

Alkateak erantzuten dio, foru diputatuarekin eta Foru Aldundiko beste teknikari batekin ere hitz egin ondoren, guztia bideratzeko beste teknikari bat jarri izan dela udalarekin harremanetan baina horrek ere ezin izan duela ezer lortu.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak erantzuten du, entzun duela toki askotan arazoak dituztela zuntza eramateko eta, horren ordez, beste era batetan egitea posible izan daitekeela. Halaber adierazten du, M^a Pilar García de Salazar Olanorekin izango dela aurki eta gaia aterako diola ea zeren berri izatea lortzen duen.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.